PISA 2022

Programme for International Student Assessment
Ikasleen Nazioarteko Ebaluaziorako Programa

ZER DA PISA?

Munduko hezkuntza ebaluazio garrantzitsuenetariko bat da. PISAn 80 herrialdek baino gehiagok hartzen dute parte, eta hiru urtean behin egiten da.



ZERGATIK DA GARRANTZITSUA?

PISAn parte hartzeak aukera ematen duelako:

- ikasleek denboran zehar duten gaitasun-maila ezagutzeko eta gainerako herrialdekoekin alderatzeko;
- hezkuntza-sistema arrakastatsuak eta hezkuntza-jardunbide onenak hautemateko, eredu izan daitezen;
- gobernuek beren hezkuntza-politikak balioetsi eta berriak diseina ditzaten.

NORK HARTUKO DU PARTE?

2006an jaiotako ikasleen lagina:

- 3777 ikasle,
- **97 ikastetxe,**
- **gehienez 42 ikasle ikastetxe bakoitzean (ikastetxeren batean 53).**

ZER EBALUATUKO DA?

Proba kognitiboez gain (konpetentziak), ikasleen errendimenduan eragina duten faktoreei eta irakaskuntza-ikaskuntza testuinguruari buruzko informazioa izateko aukera emango duten galdera-sortak osatzen dira.

Konpetentziak

- Matematikarako konpetentzia*
- Zientziarako konpetentzia
- Irakurketarako konpetenzia
- Finantzarako konpetentzia
- Pentsamendu sortzailea

Galdera-sortak

- Ikasleentzako galdera-sorta:
  - Finantza gaiei buruzko galderak
  - IKTen ezagutzari buruzko galderak
  - Ongizateari buruzko galderak
- Ikastetxeentzako galdera-sorta (zuzendaritza-taldea).

*PISA 2022an Matematikarako konpetentzia sakonago ebaluatuko da.

NOLA EBALUATUKO DA?

Ordenagailu bidez, Interneteko konexiorik gabe.
Aplikazioaz arduratzen den enpresak ordenagailuak eta behar den material guztia eramango ditu.

Zenbat iraungo du?

- Proba kognitiboak: 2 ordu bi saiotan banatuta eta 10 minutuko atsedena bien artean.
- **Galdera-sortak: 75 minutu.**

Noiz aplikatuko da ikastetxeetan?

- **2022ko apirilaren 26tik maiatzaren 9ra.**

Noiz jakingo dira emaitzak?

- ELGAk 2023ko abenduaren 6an argitaratuko ditu datuak.
- ISEI-IVEIk 2024an ikastetxeei bidaliko dizkie txostenak, eta argitaratuko du EAEko txostena.

OCDE

ISEI·IVEI

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA SAILA DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN